

# Alizia miresgarria

# SARRERA

Pozez eta plazerez gainezka aurkezten ditu lurretako Herri Bibliotekak aurtengo esker oneko jardunaldi literarioak. Alizia dakargu geurera, aspaldiko lagun maitea. Alizia eta bere lurralde miragarria, bere ametsen eremu askea, bere lurpeko sakontasunera bidaia zoragarria.

Duela 160 urte kaleratua, oraindik orain eta gaur egun bizirik dirau gure kulturaren irudimenean. Argitalpen berriak, moldapenak, itzulpenak eta albumak kaleratzen dira, filmak egiten dira, serieak eta antzerkiak, mahai-inguruak antolatu, kamisetak eta iruditeria piloa sortu bere inguruan.

Nekez du beste ezein sorkuntza obrak horren gaurkotasun freskoa mantendu sortu zenetik hainbeste denbora igarota. Arrazoi asko eta sendoak daude horren atzean. Narrazioaren irudimen aske eta indartsua, idazkeraren erritmoa, oinarrizko giza sinboloekin bat egiteko duen abilezia. Haurrak konektatzen ditu, ametsen eremura askatasunez loturik dena baita posible mugarik barik. Helduak konektatzen ditu, jario ugalkor horretan durduza sortzen baitigu, erotasuna, logika, filosofia eta matematika gaiak sakontasun harrigarriz ekarriaz.

Urteak generamatzan Alizia landu eta gozatu nahian lurretan. Izan ere, bera gurera ekarrita gu geu eta herria ere bilakatzen gara miragarriago.

# INTRODUCCIÓN

*Con mucha alegría y un gran placer presenta la Biblioteca Municipal de Iurreta las jornadas literarias de agradecimiento de este año. Esta vez traeremos a Alicia, nuestra querida amiga. Alicia y su maravilloso mundo, el espacio libre de sus sueños, su maravilloso viaje a las profundidades de la tierra.*

*Publicada hace 160 años, esa obra aún pervive en el imaginario de nuestra cultura. Se han publicado nuevas ediciones, adaptaciones, traducciones y álbumes, se han realizado películas, series y obras de teatro, se han organizado mesas redondas, se han impreso camisetas y existe un amplio imaginario sobre ella.*

*Difícilmente otra obra creativa ha podido mantenerse tan presente pasado tanto tiempo desde su creación. Y tras ello existen muchas y sólidas razones. La imaginación libre y potente de la narración, el ritmo de su escritura, la habilidad para fundirse con la simbología humana básica.Conecta a los niños y niñas, porque lo que es posible de imaginar libremente en el ámbito de los sueños, es posible sin ningún tipo de límites. Conecta a las personas adultas, ya que en ese fluir tan fértil, nos produce turbación, aportando con una sorprendente profundidad temas como la locura, la lógica, la filosofía y las matemáticas.*



*En Iurreta hacía mucho tiempo que queríamos tratar y disfrutar de Alicia. Y es que trayéndola aquí, nosotras mismas y el propio municipio también nos hacemos más maravillosos.*

# BIOGRAFIA

Lewis Carroll 1832ko urtarrilaren 27an jaio zen Daresburyn, Cheshiren, eta 1898ko urtarrilaren 14an hil zen Guildforden, Surreyn; denak ere Ingalaterran. Charles Lutwidge Dodgson zuen benetako izena, eta matematika eta logikari buruzko hainbat tratatu argitaratu zituen harekin. Nolanahi ere, bere literatur lanengatik eta, neurri txikiagoan, viktoriar garaiko argazkilari nagusietako bat izateagatik da ezaguna.

Hamaika seme-alabetako hirugarrena, parrokoa zuen aita. Etxean bertan jaso zuen hezkuntza, eta haurtzarotik erakutsi zuen adimen garatu eta aurreratu bat zekarrela. Ikasle bikaina eta oso adimentsua, matematika ikasi zuen Oxforden Unibertsitatean eta hogeita sei urtez jardun zuen irakasle Christ Church collegean. Totela zen, eta honek eragin kaltegarria zekarkien bere gizarte-harremanei. Gaixotasun baten kariaz, gorreria ere garatu zuen eskuineko belarrian.

1856an, Henry Liddell izeneko lankide berri bat heldu zen Christ Churchera emazte eta alabekin, eta Carrollen adiskide egin ziren. Behin, 1862an, Henryren hiru alabak txango bat egitera eraman zituen Tamesis ibaian zehar: Lorina, hamahiru urtekoa, Alice, hamar urtekoa, eta Edith, zortzi urtekoa. Neskatilak dibertitze aldera, ipuin bat asmatzen hasi zen, inprobisazio betean. Hiru neskak liluraturik utzi zituen, eta txangoa bukatutakoan Alicek istorioa idatz zezala eskatu zion. Gau osoa pasatu zuen eskuz idazten eta hurrengo Gabonetan Alice Liddelli oparitu zion. Eskuko idazlanak Alice’s Adventures Under Ground (Aliceren lurpeko abenturak) izenburua zuen eta idazlearen marrazkiak zituen.

1865ean argitaratu zen Alice’s Adventures in Wonderland (Aliceren abenturak Lurralde Miresgarrian) izenburuarekin, Lewis Carrollek sinatuta. Lehen argitalpenaren marrazkiak John Tennielek egin zituen.

Lortutako arrakasta eskergak bigarren zatia idaztera behartu zuen: Through the Looking-Glass and what Alice Found There (Ispiluan barrena eta Alicek han aurkitu zuena).

# ”Nor naiz ni munduan? Hori da buruhausterik handiena”.

Lewis Carrol nació el 27 de enero de 1832 en Daresbury, Cheshire, Inglaterra, y murió el 14 de enero de 1898 en Guildford, Surrey, Inglaterra. Su verdadero nombre era Charles Lutwidge Dodgson, y bajo ese nombre publicó varios tratados sobre matemática y lógica. Sin embargo, Lewis Carroll es conocido por sus obras literarias y, en menor medida, por ser uno de los fotógrafos más importantes de la época victoriana.

Hijo de un párroco, fue el tercero de once hermanos. Fue educado en su propia casa, y ya desde niño demostró una inteligencia muy desarrollada y avanzada. Fue un excelente alumno, muy inteligente. Estudió matemáticas en la Universidad de Oxford y ejerció de profesor durante veintiséis años en el Christ Church College. Sufría tartamudeo, lo que tuvo efectos perjudiciales en sus relaciones sociales. También padeció sordera en el oído derecho a consecuencia de una enfermedad.

En 1856, Henry Liddell, un nuevo decano llegó a Christ Church con su mujer y sus tres hijas, y entablaron una gran amistad con Carroll. Una vez, en 1862, Carroll llevó a las tres hijas de Henry a una excursión por el Támesis: Lorina, de trece años; Alice, de diez y Edith, de ocho. Con el objetivo de divertir a las niñas, Carroll improvisó un cuento. La narración entusiasmó a las niñas, y al finalizar la excursión, Alice le pidió que escribiese la historia. Carroll pasó toda la noche escribiendo, y se lo regaló a Alice Liddell en las Navidades siguientes. El manuscrito se titulaba Alice's Adventures Under Ground (Las aventuras subterráneas de Alicia), y estaba ilustrado con dibujos del propio autor.

La obra se publicó en 1856 como Alice's Adventures in Wonderland (Las aventuras de Alicia en el país de las maravillas), y firmada por Lewis Carroll. Las ilustraciones de esta primera edición fueron de John Tenniel.

El éxito del libro llevó al autor a escribir una segunda parte: Through the Looking-Glass and what Alice Found There (A través del espejo y lo que Alicia encontró allí).

# BIBLIOGRAFIA

- 1845 - Useful and Instructive Poetry
- 1848 - The Rectory Magazine
- 1850-1853 - The Rectory Umbrella
- 1855-1862 – Mischmasch
- 1856-1857 - The Train, (aldizkaria) - kolaborazioak
- 1858 - The Fifth Book of Euclid Treated Algebraically
- 1860 - A Syllabus of Plane Algebraic Geometry, Systematically Aranged with Formal Definitions, Postulates, and Axioms
- 1860 - Notes on the First Two Books of Euclid, Designed for Candidates for Responsions
- 1864 - Alice's Adventures Under Ground (1886an argitaratua)
- 1865 - Alice's Adventures in Wonderland (Aliceren abenturak Lurralde Miresgarrian)
- 1866 - Condensation of Determinants, Being a New and Brief Method for Computing their Arithmetic Values
- 1867 – Russian Journal
- 1867 - An Elementary Treatise on Determinants with their Application to Simultaneous Linear Equations and Algebraic Geometry
- 1867 - Bruno's Revenge (1924 argitaratua)
- 1868 - The Fifth Book of Euclid Treated Algebraically, so far as it Relates to Commensurable Magnitudes.
- 1869 - Phantasmagoria and Other Poems
- 1872 - Through the Looking-Glass, and what Alice found there (Ispiluan barrena eta Alicek han aurkitu zuena)
- 1873 - The Enunciations of Euclid I-VI, Together with Questions on the Definitions, Postulates, Axioms, &c.
- 1873 - The Vision of the Three T's
- 1875 - The Hunting of the Snark
- 1876 - The Game of Logic
- 1879 - Euclid and His Modern Rivals
- 1882 - Euclid, Books I, II
- 1883 – Rhyme and Reason
- 1885 - Supplement to Euclid and His Modern Rivals
- 1885 - A Tangled Tale'
- 1889 - The Nursery Alice
- 1889 - Sylvie and Bruno
- 1893 - Sylvie and Bruno Concluded
- 1896 - Symbolic Logic, Part I
- 1898 - Three Sunsets and Other Poems



# EUSKARAZ

Alice (Aliceren abenturak Lurralde Miresgarrian eta Ispiluan barrena eta Alicek han aurkitu zuena) (1992). Pamiela argitaletxea. Manu Lopez Gasenik euskaratua.

Badaude beste hainbat argitalpen ahalegin txukuna egin dutenak obra hau euskarara ekartzeko

1. Alizia gauza miragarrien munduan. Imanol Berriatuaren itzulpena La Gran Enciclopedia Vascan,1968.

2. Alizia. Jose Maria Satrustegik, Montserrateko abadetxearen babespean, 1974an. (Carrollek The Nursery Alice izenburuarekin kaleratu zuen laburpenaren itzulpena).

3. Alizia herrialde harrigarrian Xabier Egaña izan zen ilustratzailea, eta Cruz Mujika Arbizu itzultzailea, Lur argitaletxe 1979.

4. Aliceren abenturak lurralde miresgarrian. Manu Lopez Goseniren Itzulpena, Pamiela, 1989.

5. Alizia herrialde harrigarrian. Gidoia Joséluis ; marrazkiak Chiqui de la Fuente Kriselu, 1991.

6. Alizia lurralde harrigarrian. Hiria, 2000.

7. Alizia haurrentzat. Itzulpena eta edizioa Manu Lopez Gaseni. Pamiela, 2004.

8. Alizia herrialde miresgarrian. Sarrera eta marrazkiak Chris Riddell; itzultzailea, Aitor Arana. Ibaizabal, 2020












Argazkigintzaren hastapenak
ziren, eta Lutwidge Dogson
gazteak gogoz eutsi zion arte
adierazpide sortu berriari,
viktoriar garaiko argazkilaririk
puntakoenetakoa
bilakatu arte.

Teknikoki kalitate handikoa
izanagatik ere, misteriotsu
eta eztabaidatua izan da
bere argazkigintzaren motibo
nagusia neskatila gazteak
izan izana.

**Eran los inicios de la fotografía, y el joven Lutwidge Dogson se dedicó con ilusión en esa nueva expresión artística, hasta convertirse en uno de los principales fotógrafos de la época victoriana.**

**A pesar de la gran calidad técnica de sus fotografías, ha estado siempre rodeado de misterio y ha sido motivo de debate, ya que se dedicó principalmente a fotografiar niñas.**





# ARGAZKIGINTZA

# LEWIS EUSKAL

1869an heldu zen Lewis Carroll Bilboko portura. Bartzelona, Cordoba, Madril eta Salamancako unibertsitateetan zenbait hitzaldi eskaini behar zituen “Logika eta Literatura, joan-etorrian” izenburupean, eta Bristoletik etorri zen garaiko itsasontzi linea ezagunean.

Euskal Herrira heldu bezain pronto esan omen zuen: “Eraman nazazue bertako jatetxerik onenera!”. Garaiko jatetxe ezagunenetakoa zen Marianjeles Pildain handiaren Damasorena, Bilboko Plaza Berrian kokatua. Kontatzen denez, oturuntza oparo eta eldarniozkoa bizi izan zuen han Charles Lutwidge bihurriak. Hainbesterainokoa izan zen bere plazer leherketa ezen, postre moduan, komunera joatea eskatu baitzuen. Komunera heldu eta katagorri bat ikusi zuen zulotik behera iheska. Bere atzetik sartu, bere buruari edo unibertsoari pare bat buelta eman, eta lurretako kanpandorrean agertu zen.

Bertatik ikusi zuen nola altxatzen zuten zuhaitz luze-luze bat gorantz. Zera pentsatu zuen: “zoratu egin naiz: herrialde honetan zuhaitzak ez dira lurrera erortzen, lurretik gorantz jaiki baino!”. Errealitatea ezin onarturik, zorabiatu eta lurrera erori zen.

Bere ohean esnatu zen, sekulako betekadaz, hurrengo goizean. Hitz arraro bi ahoskatu zituen, ia nahi gabe: eskerrik asko.

Bitartean, Bilbon, Marianjeles haserre zen: mamut baten pare jan zuen tipo hura komun-zulotik behera desagertu zelako.

Lewis Carroll legó al puerto de Bilbao en 1869. Debía ofrecer varias conferencias en las universidades de Barcelona, Córdoba, Madrid y Salamanca bajo el título “Lógica y literatura, en tránsito”, y llegó desde Bristol en la conocida línea de ferris de la época.

Nada más llegar a Euskal Herria, dijo: “¡Llevadme al mejor restaurante del lugar!”. El restaurante más renombrado de la época era el Damasorena, regentado por Marianjeles Pildain en la Plaza Nueva de Bilbao. Según cuentan, el rebelde Charles Lutwidge disfrutó de un opíparo y delirante banquete. La explosión de placer debió ser tan exagerada, que, como postre, solicito acudir al servicio. Cuando llegó al lavabo vio a una ardilla que se escurría por el agujero de la taza. Se introdujo tras ella, y tras dar un par de vueltas sobre si mismo y sobre el universo, apareció en el campanario de Iurreta.

Desde allí observo cómo levantaban un árbol muy largo. Y pensó: “¡me he vuelto loco: en este país los árboles no caen sobre la tierra, sino que se levantan hacia arriba desde ella!”. Incapaz de aceptar la realidad, se mareó y cayó al suelo.

Se despertó en su propia cama al día siguiente, con un tremendo empacho. Solo fue capaz de pronunciar dos extrañas palabras, casi sin querer: eskerrik asko.

Mientras tanto, en Bilbao, Marianjeles estaba a punto de estallar de enfado porque el tipo aquel que había comido como un mamut había desaparecido por el agujero del inodoro.

# HERRIAN CARROLL



Zein oroimen pobrea
atzerantz bakarrik
funtzionatzen duena!

Testuak, irudia eta diseinua: 2d1.eus

Iurreta
Eleizateko Udala
HERRI BIBLIOTEKA